

IKUSKARIA

Nazioarteko dantzak Portugaleten

UZTAILAREN 24AN emango zaio hasiera Portugaleteko 39. Nazioarteko Folklore Jaialdiari, nahiz eta aurrez, hilaren 21ean, parte hartzaileek Munduko Dantzak ikuskizuna eskainia duten. Benin, Galizia, Kalmykia –Errusiar Federazioa osatzen duten errepubliketako bat–, Kanada, Peru eta Turkiatik iritsitako taldeak, jaialdiaren antolatzaile Elai Alairekin batera, uztailaren 27ra arte jardungo dira iluntzeroko 21:30ean, La Canilla ibiltokian. Antzezleku berria aukeratu dute, hortaz, baina aurreko urteetakoak bezala, kalean dago hau ere. Ohitura denez, ikusleentzat dohainik izango da; eskertzekoa beti, zer esanik ez garaiotan.

Elai Alai taldeak 1972an antolatu zuen estreinakoz Nazioarteko Folklore Jaialdia. Franco hil osteko garai gorabeheratsuetan hiru urteko etenaldia egin eta gero, jaialdiak 1980an ekin zion gaur arteko segidari. Orduetik ez dio hazteari utzi, eta honezkero ohitu egin gara urtero-urtero ia kontinente guztietako dozena erdi dantza taldez goatzera Bizkaiko Zubiaren itzalean. Ondoko argazkian, 2011ko edizioan Portugaletera etorritako Indonesiako taldea ikus dezakezue. ■



ASTIER BASTIDA HURTADO

Unai Brea



SAIAKERA

Por el bien del imperio. Una historia del mundo desde 1945
Josep Fontana
Pasado y presente, 2011

AEBen egungo klabeak

BIGARREN MUNDU GERRAZ eskolan edo unibertsitatean ikasitakoarekin asko zenekiela uste zenuen? Bada, Josep Fontanaren liburu hau irakurtzen baduzu, ezetz konurtaruko zara, edo behintzat, beste gauza asko ere ikas ditzakezula gerraren arrazoiez eta ondo-

rioez; eta batez ere, hurrengo 40 urteetan European eta munduan izandako bilakaez. Funtsean, AEBen eta SESBen Gerra Hotza ardatz hartuta, 1945etik gaurdainoko munduaren garapenaren klabe nagusiak ulertzeko tresna bikaina da.

Hamarkada horiei buruzko klabe ekonomiko eta politikoetan bikain arakatzear gain, munduko Gerra Hotzaren gune beroenak ere aztertzen ditu: Txina, Vietnam, India, Israel, Angola, Aljeria, Kuba, Txile, Argentina, Afganistan... Dozenaka herrialdetan bi ikusmolde kontrajarrien zipriztinak miatzen ditu zorrotz historialari katalanak.

AEBen nagusitasun militar eta ekonomikoa handia izanik, gerra nuklearraren beldurrak orekatutako hamarkadak izan ziren, nahiz eta pentsatu baino gehiagotan izan zen lehertzekotan gerra nuklearra, esaterako 1962an, Kubako misilen krisian. Funtsean,

AEBek munduan barrena bere ikusmoldea eta nagusitasuna inposatzeko baliatu zuten Gerra Hotza eta, globalizazioaren emaitzak ikusita, ezin esan guztiz txar to atera zaienkin.

Historialari bati dagokion moduan, liburua zehatza eta analitiko da, baina bere balio handienetakoa idazkeran dago, gertakizuna, analisisa, dokumentazioa eta anekdota era erakargarrian etengabe tartekatzen dituelako, 1.000 orrialde bata bestearen atzean irentsiaraziz. Nekez idatz daiteke historiaz modu atsegina goan. Nazioarteko gaietan interesa duen irakasle, kazetari edota herritarraren apalean falta ezin den harribitxia da, unean uneko plazeraz gain, dokumentaziorako ere oso erabilgarria. Murgiltze saiorik egin gura duenarentzat, 2013ko urtarrilean *Larrun* monografikoa egin genuen Fontanaren elkarrizketarekin. ■

Xabier Letona